

24. Newsletterra Ekaina 2026

Enfokatur Euskadiko Behatoki Turistikoak Euskadiko eskaintza eta eskari turistikoaren egoeraren adierazle nagusien azterketa laburra egin du **2026ko apirilari, 2026ko Aste Santuari** eta **2026ko lehen lauhilekoari** dagokienez, betiere araututako ostatu **turistikoz guztien** erreparatuta.

2026. URTE METATUA (LEHENLAUHILEKOA)




2026ko lehen lauhilekoan, eguneko eskuragarri dauden ostatu-plazzen kopurua % 3,4 hazi da, 2025eko aldi beraren aldean.

Era berean, **ostatu-eskariak gora egin du** 2025eko aldi berarekin alderatuta: turisten **sarrerak % 0,3** (+1.272.566) eta **gaualdiak % 2,1** (+2.579.501) hazi dira. Salbuespena plazzen araberako **okupazio-maila izan da, % 0,3** (% 31,40) jaitsi baita.

**Ostatu-mota guztiek plaza gehiago eskaini dituzte** egunean 2026ko hasiera honetan, 2025aren aldean. Eskariari dagokionez, hotelek soilik izan dute **gorakada sarreretan (+%1,2)**. **Gaualdien kasuan, kanpinak soilik egin dute behera (-% 5,2)**. Eta plazzen araberako okupazioari dagokionez, apartamentu turistikoetan (+% 2,7) zein aterpebe turistikoetan (+% 0,7) handitu da.

**Helmuga guztiek eguneko plazzen eskaintza handitu dute** 2025eko lehen lauhilekoarekin alderatuta, **Donostiak izan ezik, eskaintza txikiagoa baitu (-% 4,3)**. **Gasteizek eta Donostiak behera egin dute sarreretan eta gaualdietan**. Gainera, plazzen araberako okupazioan **helmuga gehienek behera egin dute, Bilbok eta Donostiak izan ezik, horiek gora egin baitute.**



MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA - 2026KO URTE METATUA (LEHEN LAUHILEKOA)

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

POSIZIOA	JATORRIAK	2026KO SARREREN % KUOTA	SARRERAK 2026 vs 2025	GAUALDIAK 2026 vs 2025
1	Madrilgo Erk.	%12,2	%10,1 ↓	%9,9 ↓
2	Euskadi	%12,2	%1,4 ↓	%3,1 ↓
3	Frantzia	%9,4	%4 ↓	%2,6 ↓
4	Katalunia	%7,6	%0,2 ↓	%1,4 ↓
5	Gaztela eta Leon	%4,1	%2,8 ↓	%2,1 ↓
6	Erresuma Batua	%3,6	%5,7 ↑	%10,4 ↑
7	Alemania	%3,2	%4,3 ↑	%12,3 ↑
8	Estatu Batuak	%3,2	%12 ↑	%13,4 ↑
9	Valentziako Erk.	%3,1	%5,5 ↑	%4,8 ↓
10	Andaluzia	%3	%3,3 ↓	%4,5 ↓

**Merkatu nazionalak merkatu-kuota handiagoa du, % 58,2koa**, baina **% 1,3 egin du behera** 2025eko lehen lauhilekoaren aldean. Aitzitik, **nazioarteko merkatua % 2,8 hazi da**.

**10 merkatu igorle nagusien artean nazioarteko lau merkatu daude: Frantzia, Erresuma Batua, Alemania eta Ameriketako Estatu Batuak**. Top 10 honetan, **Erresuma Batua, Alemania, AEBk eta Valentziako Erkidegoak** hazkundeak erregistratu dituzte sarreretan eta gaualdietan; bestalde, **merkatu katalanak** turisten sarreretan egin du gora.

Sailkapeneko buruan hauek daude, hurrenkeran honetan: **Madrilgo Erkidegoa (% 12,2)**, **barne-merkatua (Euskadi) (% 12,2)**, **Frantzia (% 9,4)**, **Katalunia (% 7,6)** eta **Gaztela eta Leon (% 4,1)**.

2026KO APIRILA



2026ko apirilaren % 3,1 plaza gehiago eskaini dira egunean (64.039) 2025eko hilabete beraren aldean. Era berean, **ostatu-eskariaren adierazleek gora egin dute: +% 2,6 sarreretan (442.915) eta +% 4,5 gaualdietan (907.132)**. Alabaina, **plazzen araberako okupazio-mailak apur bat behera egin du, % 0,5** (% 41,70).

Ostatu-motei dagokienez, **plazzen eskaintzak gora egin du ostatu gehienetan 2025eko otsailaren aldean, kanpinetan izan ezik (-% 2)**. Eskariaren adierazleerri erreparatuta, hotelek **adierazle guztietan gora egin dute; apartamentu eta aterpebe turistikoek gaualdietan egin dute gora; eta kanpin zein apartamentu turistikoek**, berriz, **okupazio-mailan hazi dira**.

**Gasteizek behera egin du ostatu-eskariaren adierazle guztietan**, 2025eko apirilaren aldean. **Donostiak eta Bilbok, aldiz, eskari-adierazle guztietan gora egin dute**. Azkenik, **Euskal Kostaldeak, Barnealdeak eta Arabako Errioxak** behera egin dute plazzen araberako okupazioan.



MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2026KO APIRILA

10 MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2026KO APIRILA

POSIZIOA	JATORRIAK	2026KO SARREREN % KUOTA	SARRERAK 2026 vs 2025	GAUALDIAK 2026 vs 2025
1	Madrilgo Erk.	%10,2	%11,3 ↓	%13,4 ↓
2	Frantzia	%9,8	%2,3 ↓	%1,7 ↓
3	Euskadi	%9,1	%1,7 ↓	%1,9 ↓
4	Katalunia	%7,1	%5,2 ↓	%7,5 ↓
5	Erresuma Batua	%4,8	%2,2 ↓	%7,6 ↓
6	Estatu Batuak	%4,8	%15,6 ↑	%19,5 ↑
7	Alemania	%4,2	%6 ↑	%10 ↑
8	Gaztela eta Leon	%3,6	%5,4 ↑	%6,7 ↑
9	Valentziako Erk.	%3,1	%12,1 ↑	%8,2 ↑
10	Italia	%2,6	%2,6 ↓	%2,9 ↓

Apirilean, lehen aldiz, **nazioarteko merkatuak kuota handiagoa du merkatu nazionalak baino** (% 51 eta % 49, hurrenez hurren), eta neurri handiagoan ere hazi da: **+% 4,9 nazioarteko merkatua eta +% 0,4 merkatu nazionala**, 2025eko apirilarekin alderatuta.

2026ko apirilako 10 merkatu igorle nagusien artean **beherakadak ikusten dira kuota handiena dutenetan**. Aldiz, **Erresuma Batua, Ameriketako Estatu Batuak, Alemania, Gaztela eta Leon eta Valentziako Erkidegoa** bezalako merkatuek gora egin dute sarreretan nahiz gaualdietan. Hilabete honetan **5 nazioarteko merkatu igorle ditugu 10 nagusien artean: Frantzia, Erresuma Batua, AEB, Alemania eta Italia**.

Sailkapeneko buruan hauek daude, hurrenkeran honetan: **Madrilgo Erkidegoa (% 10,2)**, **Frantzia (% 9,8)**, **barne-merkatua (Euskadi) (% 9,1)**, **Katalunia (% 7,1)** eta **Erresuma Batua (% 4,8)**.

2026KO ASTE SANTUA

2025-26 KO ALDAKETA (%)	SARRERAK	GAUALDIAK	PLAZAKAKO OKUPAZIO-MAILA
Euskadi	%5,7 ↑	%2,9 ↑	%0,3 ↓
Vitoria-Gasteiz	%1,4 ↓	%7,3 ↓	%9,5 ↓
Bilbao	%2,3 ↑	%1 ↑	%0,7 ↑
Donostia/San Sebastian	%9,8 ↑	%4,9 ↑	%6,2 ↑
Euskal Kosta	%11,5 ↑	%2,8 ↑	%0,3 ↓
Arabako Errioxa	%13,5 ↓	%3,2 ↓	%5,9 ↓
Barnealdea	%17,3 ↑	%8,6 ↑	%0,3 ↓

**Hazkunde izan da Euskadiko sarreretan eta gaualdietan** 2025eko Aste Santuaren aldean, **baina beherakada arina plazzen araberako okupazioan**.

**Donostiak hazkunde nabarmena erregistratu du okupazioan, turista kopuruan eta gaualdietan**. Halaber, **Bilbok gora egin du eskari-adierazle guztietan, baina ehuneko txikiagoan**. Aldiz, **Gasteizek eta Arabako Errioxak** eskariaren adierazle guztietan beherakadekin itxi dute 2026ko Aste Santua. **Euskal Kostaldeak eta Barnealdeak gora egin dute turista kopuruan eta gaualdietan**, baina behera plazzen araberako okupazioan.

	MERKATU NAZIONALA		NAZIOARTEKO MERKATUA	
	2025-2026 ALDAKETA (%)	2026KO SARRERA GUZTIZIAREN %	2025-2026 ALDAKETA (%)	2026KO SARRERA GUZTIZIAREN %
Euskadi	%7,1 ↑	%57,4	%4 ↓	%42,6
Vitoria-Gasteiz	%2,7 ↑	%80,9	%15,9 ↓	%19,1
Bilbao	%5,1 ↑	%45,7	%0,1 ↑	%54,3
Donostia/San Sebastian	%13,2 ↑	%41,5	%7,6 ↑	%58,5
Euskal Kostaldeak	%12,4 ↑	%66,9	%9,8 ↑	%33,1
Arabako Errioxa	%17,1 ↓	%77,2	%0,9 ↑	%22,8
Barnealdea	%19,5 ↑	%70,8	%12,3 ↑	%29,2

Ia **10 turistatik 6 merkatu nazionaletik** datoz, eta merkatu horren **hazkunde nazioartekoarena** baino handiagoa da.

**Bilbo eta Donostia** dira nazioarteko **merkatuaren presentzia handiena duten helmugak** (Euskadiko batezbestekoaren gainetik), eta bi hirietan **nazioarteko merkatuak** pisu handiagoa du merkatu nazionalak baino.

**Beherakadak Gasteizen** (nazioarteko merkatuan, -% 15,9) eta **Arabako Errioxan** (merkatu nazionalan, -% 17,1) erregistratu dira.